



Esp. kodea: 2020HORD0001

Gaia: ARRASATEKO 1/2021 UDAL
ORDENANTZA, APARKATZE ETA IGAROTZE
MUGATUKO SISTEMA ARAUTZEN DUENA
(TAO SISTEMA)
ORDENANZA MUNICIPAL 1/2021 DE
MONDRAGÓN, REGULADORA DEL SISTEMA
DE ESTACIONAMIENTO Y TRÁNSITO
LIMITADOS (TAO SISTEMA).

**ALKATEAREN EBAZPENA
N25/00828**

IKUSITA 2021eko martxoaren 2an behin betiko onartu zela Arrasaten (TAO Sistema) aparkatze eta igarotze mugatuko sistema arautzen duen 1/2021 Udal Ordenantza.

IKUSITA 2022ko uztailearen 19an Osoko Bilkurak goian zehaztutako ordenantzaren 1. Aldaketa onartu zuela.

IKUSITA Udalak baduela ordenantzaren 2. Aldaketa aurrera eramateko egitasmoa.

IKUSITA hurrengo aldaketa izapidetzeko Arrasateko Udalak onartuta daukan gobernu planean 2025ean udal ordenantza hau berrikustea aurreikusten dela.

IKUSITA udalaren antolaketa dela medio, ez dela berrikuspen hori egikaritzako izapiderik abiatu.

IKUSITA, Arrasateko herriko zenbait kaletan sortzen dabilen eragozpena geroz eta handiagoa dela eta beharrezkoa dela horiei irtenbide azkar bat ematea.

IKUSITA eragozpen handiena 1.3 eremuan dagoela; hain zuzen ere, Udalpe kalea, itxaropena plaza kaleetan.

IKUSITA TAO SISTEMAREN baitan kale hauek ez txertatu izanak bertako bizilagunen eguneroko bizitzan eragina daukala.

KONTUAN IZANDA, Arrasaten (TAO Sistema) aparkatze eta igarotze mugatuko sistema arautzen duen 1/2021 Udal Ordenantzaren Lehen xedapenak ordenantza garatzeko eta aplikatzeko ahalmena erregulatzen duela:

1. Ordenantza hau benetan eta eraginkortasunez aplikatzeko orduan, askotariko gorabeherak gerta daitezke, eta, horien ondorioz, indarrean dagoen bitartean jarraibide osagarriak eta aldaketa materialak egin beharko dira. Testuinguru horretan, Alkateari ahalmena ematen zaio honetarako:
 - A) Aginduak eta jarraibideak emateko, beharrezkoak direnean Ordenantza hau egoki interpretatu eta aplikatzeko.
 - B) "TAO Sistema"ren tokiarekiko aplikazio eremua zabaldu edo murrizteko, azaleraren % 5eko mugarekin, Ordenantza honen I. eranskinean (Esparru banaketa) jasotakoa.
 - C) Erregulazioaren mende dauden "Esparru"en eta "Barruti"en mugaketa aldatzeko, I. eranskin horretan bertan jasoa, aurreko atalean kanpo perimetroari dagokionez adierazitako mugekin.
 - D) "Barruti" bakoitzaren barruan dauden Aparkatzeko guneen lurraldearekiko kokalekua eta mugak aldatzeko, jasota daudenak ordenantza honen II. eranskinean (antolamendua).

Sinatzailea/k	Alkatea: Mainer Morras Azpiazu		
Kodea	N25/00828	Udala Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA14VDA.1.qu0u		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA14VDA1.qu0u		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			



Esp. kodea: 2020HORD0001

Gaia: ARRASATEKO 1/2021 UDAL
ORDENANTZA, APARKATZE ETA IGAROTZE
MUGATUKO SISTEMA ARAUTZEN DUENA
(TAO SISTEMA)
ORDENANZA MUNICIPAL 1/2021 DE
MONDRAGÓN, REGULADORA DEL SISTEMA
DE ESTACIONAMIENTO Y TRÁNSITO
LIMITADOS (TAO SISTEMA).

- E) *Aparkatzeko gune horien antolamenduaren alderdi zehatz batzuk aldatzeko, baina bakarrik egutegiari eta ordutegiari buruz, gehieneko aparkaldiari buruz eta aparkatze berri bat gauzatzeko gutxieneko denborari buruz, une oro errespetatuz Ordenantzaren gorputzaren egitura eta logika.*
- F) *Gordetako lekuen kokalekua eta mugaketa aldatzeko, eta baita aldi baterako mugatzea eta atxikipen bikoitza, halakoak dituztenean.*
- G) *Eremu murriztuen kokalekua eta mugaketa aldatzeko, baita horiei lotutako araudiak ere, jasotakoak Ordenantza honen III. eranskinean (Eremu murriztuak).*
- H) *Jarraibide osagarriak emateko, beharrezkoak direnean Ordenantza hau benetan betetzeko.*

2. *Ahalmen hori erabiltzek berekin dakar "TAO Sistema"ri buruzko informazioa periodikoki eguneratzea, Ordenantza eta*

Eranskinak barne, xedea izanik herritarrek eskuratu dezaketen informazioa ahalik eta eguneratuena izatea. Informazio eguneratua argitaratuko da TAOKUDEAri lotutako web gunean.

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez **EBAZTEN DUT:**

LEHENENGOA. - Ontzat ematea TAO SISTEMAREN aplikazio eremua handitzea erabakitzea eta 1.3 eremuan honakoa atarteak sartzea erabakitzea:

- Udalpe Kalea 1,2,3,4,5,6,7,8,9,10,11,12,13,14,15,16,17,19,21,23,25
- Itxaropena Plaza 1,3,5,6,7,8,9,10,11,13
- Uribarri auzoa 30,31.
- Erguinarro kalea 2
- Uribarri Etorbidea 26

Dagokion Eranskinean aldaketa egin beharko da atarte hauek aurreikusi ditzan.

BIGARRENA. - TAO SISTEMAREN baitan sartzea 1 eranskinean adierazitako planoan zehazten den modura.

HIRUGARRENA. - Honako erabakiaren berri ematea TAO SISTEMA kudeatzeaz arduratzen den GERTEK SOCIEDAD DE GESTIONES Y SERVICIOS SA enpresari.

LAUGARRENA Ordenantzaren Lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz, TAOKUDEAri lotutako web gunean argitaratzea eguneratutako Ordenantzaren I. eta II. eranskinak, herritarrek eguneratze horren inguruko informazioa eskuratu dezaketen.

Sinatzailea/k	Alkatea: Mainer Morras Azpiazu		
Kodea	N25/00828	Udala Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA14VDA.1.qu0u		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA14VDA1.qu0u		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			



Esp. kodea: 2020HORD0001

Gaia: ARRASATEKO 1/2021 UDAL
ORDENANTZA, APARKATZE ETA IGAROTZE
MUGATUKO SISTEMA ARAUTZEN DUENA
(TAO SISTEMA)
ORDENANZA MUNICIPAL 1/2021 DE
MONDRAGÓN, REGULADORA DEL SISTEMA
DE ESTACIONAMIENTO Y TRÁNSITO
LIMITADOS (TAO SISTEMA).

BOSGARRENA.- Agindua ematea, Udal honetako Hirigintza, trantsizio ekologiko eta mugikortasun sailari aipatutako ordenantza honen 2. Aldaketa izapidetzeko dagozkion izapideak abiarazi ditzala, non erabaki honen baitan jasotako xedapenak barne bilduko diren.



Sinatzailea/k	Alkatea: Mainer Morras Azpiazu		
Kodea	N25/00828	Udala Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA14VDA.1.qu0u		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA14VDA1.qu0u		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			